

Ebazpena: R029/2025

Espedientea: E184/2024

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 29a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) gatazka planteatu du Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurka (aurrerantzean, ZAEA) honako hauek ordainarazteko eskumenari buruz: ZAEAk (IFK: XXXXXXXXXXXX1) jasotzaile jakin batzuei 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietan ordaindutako lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargatik aplikatzen zaizkien atxikipenak eta konturako sarrerak. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 184/2024 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- 2024ko otsailaren 6an, GFAk bidalketa-eskaera jakinarazi zion ZAEARI, 2024ko urtarrilaren 22ko txosten batekin batera, ondoren zehaztuko diren pertsonen itzul dakizkien atxikipenak eta konturako sarrerak, PFEZaren kargatik aplikatutakoak 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietan ordaindutako lanaren etekinei (guztira, 2.613.648,49 euro):

a) ZAEAk Gipuzkoako lantokietan dituen jasotzaileei aplikatutako atxikipenak (guztira 1.899.878,59 euro).

b) Gipuzkoan bizi ziren jasotzaileei jasotako etekinei aplikatutako atxikipenak, jasotzaileek eurek edo haien ezkontideek ZAEArentzat lan egin zutenean (guztira 713.769,90 euro).

2.- 2024ko otsailaren 29an bidali zuen idazki batean, ZAEAk ezezkoa eman zion bidalketa-eskaerari, bi arrazoi emanda: batetik, ZAEAk berak daukala kopuru horiek ordainarazteko eskumena; bestetik, GFAk ez zuela behar bezala frogatu bere eskubidea.

3.- 2024ko apirilaren 10eko 150/2024 Foru Aginduaren bidez, zeina 2024ko apirilaren 11n jakinarazi baitzitzaion ZAEARI GFAk ZAEARI eskatu zion inhibitzeko eztabaidatutako eskumenean, aipatutako PFEZaren atxikipenei zegokienez.

4.- ZAEAk ez zion erantzun inhibizio-errekerimenduari, eta, beraz, isilbidez baztertu zuen, ez baitzion erantzun abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean Arbitraje Batzorderako aurreikusten den Erregelamenduaren 13.1 artikulua horretarako ematen duen hilabeteko epean.

5.- 2024ko maiatzaren 21ean, GFAk gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean eztabaida eragin duten atxikipenak ordainarazteko eskumenaren inguruan, eta eskatu zuen efektuak zabaltzeko prozeduraren bidez izapidetzeko (prozedura hori Ekonomia itunaren 68.Hiru artikuluan arautzen da), urriaren 20ko 137/2022 Ebazpenean ezartzen den irizpideari jarraikiz (har

36/2018 gatazka ebazten du, ZAEAr berari buruzkoa, eta irizpidea Auzitegi Gorenak berretsi zuen urriaren 24ko 1313/2023 epaian). Horren emaitza espedientean bildu da.

6.- Araudiak eskatzen duenez jakinarazpenak prozedura telematiko bidez egiteko, eta horrek esan nahi duenez izapideak horretarako prestatutako plataforma elektronikoaren bidez egin behar direla, alegazio-izapide bakarra eman zitzaien 68.Hiru artikuluan aipatutako aldeei, hilabeteko epean luzatuz gero prozeduraren baliozkotasunari batere eragiten ez dion salbuespenarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zeinak Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Efektuak zabaltzea.

Ekonomia Itunaren 68. artikulua hiru garren apartatuak —*ratione temporis* aplikagarriak— Arbitraje Batzordearen «prozedura berezi» gisa arautzen du efektuak zabaltzearena, besteak beste. Artikulu horren arabera:

«Baldin eta norbait parte bada ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordean dagoen gatazka batean, eta auzi horren muinean dagoen kasuaren oinarria jada ebatzita badago beste auziren batean Arbitraje Batzordeak emandako ebazpen irmo batez, ebatzi gabe dagoen auzia ebazpen irmo horren ondorioak zabalduz ebatz dadila eskatu ahal izango du.

Hori dela eta, Arbitraje Batzordeak gainerako alderdi interesdunei helaraziko die ebazpen irmoaren efektuak zabaltzeko eskaera-idazkia, hamar eguneko epe komunean kasuen oinarriari buruzko alegazioak egin ditzaten, eta ebatzi beharko du ebazpen irmoaren ondorioak zabaltzen dituen ala arau orokorreari jarraituz arbitraje-prozedurak hilabetez aurrera jarraituko duen».

3.- Aplikatu beharreko arauak.

Zehazteko zer administraziok daukan eskumena lanaren etekinen gaineko PFEZaren atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko, kontuan hartu behar da zer xedatzen den Ekonomia Itunaren 7. artikuluan, 2017ko abenduaren 30etik aurrera indarrean dagoen idazkeran:

«Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, edo zer tokitan egin diren zehazterik ez dagoenean, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla.

Telelanaren kasuan ere, eta lanak edo zerbitzuak atzerrian egiten direnean, edo ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan, ulertuko da langilea adskribatuta dagoen lantokian egin direla.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-

aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

(...)

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko organismo autonomoetako eta entitate publiko enpresarialetako funtzionarioei eta enplegatuei, ez eta Estatuko merkataritza-sozietateetakoei, Estatuan adskribatutako partzuergoetakoei, Estatuko fundazioetakoei, transferitu gabeko unibertsitate publikoetakoei eta Euskadiko lurraldean dauden portuetako agintarizetakoei ere».

4.- GFAren jarrera.

Bere iritziazen alde egiteko, GFAk alegatu du Arbitraje Batzorde honen urriaren 20ko 137/2022 Ebazpenean xedatzen dena , bai eta Auzitegi Gorenaren urriaren 24ko 1313/2023 epaian xedatzen dena ere. Biak dira ZAEA zergapekoaren inguruko 36/2018 gatazkari buruzkoak , eta bietan onartu da GFAk daukala eskumena.

GFak azaldu duenez, lehenengo Arbitraje Batzordeak eta gero Auzitegi Gorenak ebatzi dute eztaba daezina dela estatu-agentziak (ZAEA barne) organismo autonomoak direla eta Estatuko sektore publiko instituzionalaren barnean daudela (administrazio instituzionala ere esaten zaio), ez «Estatuko Administrazioaren barnean». Hau da, ZAEA ez dago «Estatuko Administrazio Orokorrean», baizik eta «administrazio instituzionalean», eta, horregatik, aplikatu behar zaio Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua-ren bigarren paragrafoa. Horregatik, gatazka hau eragin duten hartzaileen atxikipenak eta konturako sarrerak, jasotzaileen konturakoak, ordaindu behar lirateke Ekonomia Itunaren 7.Bat artikuluan ezartzen den arau orokorraren arabera.

GFak adierazi duenez, gatazka honetako jasotzaile guztiak Gipuzkoan ari dira lanean edota lurralde horretan dute ohiko bizilekua, eta, ondorioz, GFari ordaindu behar zaizkio ZAEAk 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietan ordaindutako kopuruei PFEZaren kargatik aplikatutako atxikipenak, aktiboei zein pasiboei aplikatutakoak, jasotzaileak ez beste pertsona batzuek sortutako pentsioei aplikatutakoak barne .

5.- ZAEAREN JARRERA.

5.1.- ZAEAk adierazi duenez, Ekonomia Itunean «Estatua» edo «Estatuko Administrazioa» adierazpideak erabiltzen direnean, Ituna Estatuaz edo Estatuko Administrazioaz ari da, ez Estatuko Administrazio Orokorraz. Hala, Ekonomia Itunak xedatzen du Estatuko Administrazioari dagozkiola «Estatuko Administrazio Orokorrean» eta «Estatuko Administrazio Instituzionalaren»

enplegatuek jasotako ordainsarien atxikipenak, 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoan espresuki jasotzen diren salbuespenak izan ezik.

Horrela, hainbat tipologiatako beste entitate guztiak ez dira sartzen 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoko salbuespenean, eta, beraz, 7.Bi artikuluaaren lehen paragrafoko arau bereziak babesten ditu.

ZAEA araubide bereziko estatu-entitate publikoa da, eta bere legeria berezia aplikatzen zaio. Gainera, ezin da sartu pertsona juridiko publikoetarako Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoan aipatzen den ezein motatan, gatazka honen hizpide diren aldietan indarrean egon den idazkeraren arabera. Horregatik guztiagatik, Ekonomia Estatutuaren 7.Bi artikuluaaren lehenengo paragrafoko salbuespenaren babespean dago, eta, beraz, ZAEARI dagozkio gatazkaren xede-atxikipenak.

5.2.- Testuinguru eta gatazka honetan,, ZAEAk nabarmentzen du zein garrantzitsua den 10/2017 Legeak Ekonomia Itunean eragin duen erreforma, zeren entitate gehiago sartzen dira salbuespenaren salbuespeneko zerrendan, baina iritsi gabe Estatuko Administrazio Instituzionaleko estatu-pertsona juridiko-publiko guztietara.

ZAEAREN iritziz, Ekonomia Itunaren arau-aldaketaren ondoriozko araubideari buruz, Auzitegi Gorenak soilik erabaki du epai batean, hain zuzen ere 2023ko urriaren 24ko 1313/2023 epaian, a, zeina GFAk alegatu baitu, eta 2014ko ekainetik 2018ko maiatzera bitarteko atxikipenei buruzkoa baita. Beraz, atxikipen horietako batzuk Ekonomia Ituna aldatu aurrekoak dira, eta beste batzuk, aldatu ondokoak. Horregatik, ZAEAREN ustez, epai bakarra denez gero, ez da eratzen

jurisprudenziaz Kode Zibilaren 1.6 artikularen ondorioetarako, eta, beraz, ezin da hartu doktrina errepikatutzat.

5.3.- Beste alde batetik, ZAEAn lanean aritutako Gipuzkoako egoiliarrei (pentsiodunei) aktiboan ari zirela ordaindutako diru-kopuruei aplikatutako atxikipenak bidaltzeko eskaera dela eta, ZAEAk adierazten du GFAk ez duela zehazten nor den kopuruen ordaintzailea (atxikitzailea ere badena), ZAEA ez beste organismo bat denean, eta ez duela aurkeztu inguruabar horren frogagirik, eta soilik mugatzen dela baieztatza ezin baliagarri dituen datuetan oinarrituta kalkulatu dituela.

5.4.- Azkenik, ZAEAREN iritziz, ez da bidezkoa aplikatzea efektuak zabaltzeko prozedura berezia, Ekonomia Itunaren 68. artikularen hirugarren apartatuan arautzen dena, GFAk nahi duen bezala, oinarria ez da berbera esku artean dugun kasuan eta GFAk bere alegazioan alegatzen dituen ebazpen eta epaiko xedean.

6.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

6.1.- Arbitraje Batzordearen ebazpen hauetan finkatu da, besteak beste, zeinena den funtzionarioei eta langile lan-kontratudunei edo administrazio-kontratudun langileei ordaindutako hartzeko aktibo zein pasiboengatik (alarguntzakoak eta zurztasunekoak barne) estatuko (Lurralde) Administrazioak eta estatuko Administrazio Institutuzionalak egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena: 15/2016 (24/2014 gatazka); 4/2017 (10/2015 gatazka), 76/2022 (38/2020 gatazka); 77/2022 (15/2021 gatazka); 137/2022 (36/2018 gatazka); 168/2022

(53/2021 gatazka); 104/2023 (64/2022 gatazka); 111/2023 (50/2022 gatazka); eta, oraintsu, 3/2025 (61/2022 gatazka). Haiek guztiak hemen osorik aipatutzat jo behar dira.

Bat etorri aipatutako ebazpenetan ezartzen denarekin, Arbitraje Batzordek ulertzen du eskema honen inguruan egituratzen dela funtzionarioen eta enplegatu publikoen atxikipenak ordainarazteko eskumena:

a) Arau orokorrak aukera ematen du ondorioztatzeko ezen, prestazio pasiboak direnean, jasotzailearen bizilekua dela atxikipenen ordainarazpen-eskumena zehazten duen lotunea, eta lana egiten den lekua, berriz, prestazio aktiboen atxikipenatarako lotunea.

b) Arau orokorra dela-eta, salbuespen bakarra dago ezarrita estatuko administrazioak ordaindu eta betiere estatuko (Lurralde) Administrazioari berari egozten zaizkion ordainsari aktibo zein pasiboen atxikipenatarako.

Arbitraje Batzordeak zenbait ebazpenetan behin eta berriro adierazi du Ekonomia Itunak ez duela jasotzen eskudantziarik EAErentzat bertako administrazioak bere funtzionarioei eta enplegatu publikoei ordaintzen dizkien kopuruen gaineko atxikipenak eta konturako ordainketak direla eta. Horrek irmotu egiten du Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoan ezartzen den arauaren salbuespena, eta, ondorioz, areagotu egiten du interpretazio zorrotza aplikatzeko premia, bertan adierazten dena mugatzen dena.

.Azkenik, salbuespenaren salbuespen bat ezartzen da Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluaaren bigarren paragrafoan, zeinak ezartzen baitu ez dela aplikatuko aurreko salbuespena, eta, ondorioz, arau orokorra aplikatuko zaiela jasotzaileei, baldin eta, funtzionario izanik edo laneko edo administrazioko kontratazio-araubidekoak izanik, Estatuko organismo publiko jakin batzuetakoak izan badira. Hortxe gertatu da interpretazio hori eragin duen arau-aldaketa. Hona laburturik:

- 2017ko abenduaren 30era arte indarrean egon den idazkera: organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak.

Bere garaian, Arbitraje Batzordeak ulertu zuen ezen, Ekonomia Itunean soilik aipatzen zirenean organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak, esamolde horren barnean sartzen zirela Estatuko Administrazio Instituzionaleko ente guztiak.

- Geroago, 2017ko abenduaren 30etik aurrera honako ente hauek gehitu ziren: «Estatuko merkataritza-sozietateak, Estatuan adskribatutako partzuergoak, Estatuko fundazioak, transferitu gabeko unibertsitate publikoak, EAEko lurraldean dauden portuen portu-agintaritzak».

Ekonomia Itunaren 7.Bi artikuluaaren idazkera berria dela eta:

- Nabarmentzekoa da ezen Ekonomia Ituna aldatzeko 10/2017 Legeak ez zuela aldatu 7.Bi artikularen lehenengo paragrafoa; beraz, «Estatuko Administrazioa» kontzeptuak ez zuen aldaketarik izan.
- 10/2017 Legearen zioen azalpenean hauxe adierazten da: «Eguneratu egin da, baita ere, 7.Bi artikuluan jasotako araua Estatuaren sektore publikoko funtzionarioei eta enplegatuei emandako ordainsariei dagozkien atxikipenen diru-sarrerari buruz».

137/2022 ebazpenean, arau-aldaketa aipatu zen. Hain zuzen ere, 2018az geroztik egindako atxikipenak direla eta, 10/2017 Legeak Ekonomia Ituna aldatu zuen egoki zedin Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84. artikuluan finkatutako Estatuko Administrazio Instituzionaleko enteen sailkapen berrira.

Beraz, Ekonomia Itunaren aldaketak soilik ekarri zuen testu itundua egokitzea eta, ondorioz, eguneratzea 40/2015 Legean estatuko sektore publikorako ezarritako sailkapen berriaren arabera,, baina ez zuen eragin funtsezko aldaketarik barnean hartzen dituen entitateetan.

- Ekonomia Itunaren 7.Bi artikularen bigarren paragrafoan espresuki jasotako organismoek ia osorik osatzen dute Estatuko Administrazio Instituzionaleko enteen sailkapen

berria, 40/2015 Legearen 84. artikulua emandakoa, eskusiboki kanpoan utziz nortasun juridikorik gabeko funtsak eta Euskal Autonomia Erkidegoko portuetako portu-agintaritzek bestelako administrazio-agintaritza independenteak, mota horiek ia ez baitaude ezarrita lurralde historikoetan.

- Arbitraje Batzordeak 15/2016 eta 4/2017 Ebazpenetan jada zehaztu zuen ezen, nahiz eta ebazpen horiek aipatutako 10/2017 Legea indarrean jarri aurreko idazketari buruzkoak izan, «esparru orokorretik salbuetsita dauden organismo gehienak oso bereziak dira, eta horregatik izan dute banakako tratamendua Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean, eta horregatik gehien-gehienak ez daude ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean. Hain bereziak izaki, ondorio hau atera dezakegu: salbuespen horrek ezin du justifikatu Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak egin nahi duen interpretazioa, zeren Ekonomia Itunaren 7. Bi artikulua bigarren paragrafoak ezin baitu izan beste xederik, ez bada zerbitzuak ematen diren tokiaren lotunearekin lotzea Administrazio Instituzionala osatzen duten organismo publiko guztiek ordaintzen dituzten lan-etekinengatiko atxikipenak».

Gainera, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko epaiak (ECLI:ES:TS:2018:1398), 2023ko urriaren 16koak (ECLI:ES:TS:2023:4215) eta 2023ko urriaren 24koak (ECLI:ES:TS:2023:4304) jurisprudenzia irmo eta baketsua sortu zuten. Epai horiek berretsi egin zituzten 4/2017, 76/2022 eta 137/2022 ebazpenak, hurrenez hurren.

Azaldutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honen ustez doktrina irmo eta errepikatua dago, Auzitegi Gorenak berretsia 2018ko apirilaren 17ko epaitik abiatuta. Doktrina hori sendotu egin dute Auzitegi Gorenaren 1268/2023 epaiak (2023ko urriaren 16koak) eta 1313/2023 epaiak (2023ko urriaren 24koak). Beraz, epai horien bidez berresten da 2018ko apirilaren 17ko epaiaren ondorioak zabaldu behar zaizkiela Estatuko Administrazio Institutuzionaleko entitate guztiei, ezartzen baitute ezen, ustez ez agertu arren Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua bigarren paragrafoan biltzen den katalogazioan, horrek ez gaituela igorriko nahitaez Ekonomia Itunaren 7.Bi artikulua lehenengo paragrafoko araura, baizik eta 7.Bat artikuluko arau orokorrera, tokiari baitagokio (*lex loci*).

6.2.- Arbitraje Batzordearen urriaren 20ko 137/2022 Ebazpenean zehazten da nork daukan eskumena ordainarazteko Bizkaian egindako lanei edo Bizkaian egoitza duten jasotzaileei (errenta pasiboetarako) dagokienez ZAEAk 2014ko ekainetik 2018ko maiatzera bitartean egindako PFEZaren atxikipenak (36/2018 gatazkan argitutako kasua). Ebazpen horretan hauxe adierazten zen:

«Zalantzarik gabekoa da, halere, estatu-agentziak –zeinak 40/2015 Legeak 28/2006 Legea indargabetuta Administrazio Institutuzionala osatzen duten

ente gisa existitzeari utzi zioten– Ekonomia Itunaren 7.2 artikuluko bigarren paragrafoan jasota daudela.

(...)

Horregatik, nolanahi ere, 40/2015 Legearen jatorrizko idazkerak emandako entitateen zerrendaren barruan, ZAEA, bere berezitasunak gorabehera, organismo autonomoak taldean sartuko litzateke».

Eta hala kontsideratu zuen zuen Auzitegi Gorenak 2023ko urriaren 24ko 1313/2023 epaian (horren bidez 137/2022 ebazpena berretsi zuen), honako hau gogorarazi baitzuen: bere berariazko legeria aplikatu behar badu ere, ZAEAk heldu egin behar dio arau sustantiboan ezartzen diren kategoria orokorretako bati, are Ekonomia Itunaren 7. artikulua idazkera berriarekin ere:

«(...) SPAJLaren 84. artikuluan (2017ko abenduaren 28ko 10/2017 Legeak finkatutako Ekonomia Itunaren 7. artikulua testu berriaren erreformaren arabera) bildutako erakundeak ez beste batzuk aipatzea gorabehera, EIL onartzen den eguneko interpretazioa aintzat hartuta, ZAEA nahitaez sartzen da orduan indarrean zegoen LOFAGEren 43. artikuluan aipatzen ziren organismo publikoen bi kategorietako batean; izan ere, horiei, EILen 7.2 artikulua arabera, 7.Bi artikulua bigarren paragrafoko salbuespena aplikatzen zaie eta, beraz, EILen 7.Bat artikuluko salbuespenetik kanpo geratzen dira».

6.3.- ZAEAk bere alegazioan adierazten du GFAk ez duela zehazten nor den kopuruen ordaintzailea (atxikitzaila ere badena), ZAEA ez beste organismo bat denean. Bada, horri dagokionez, espedientean bildutako dokumentuak aztertu dira eta haxe ikusi da: GFAk 2024ko martxoaren 22an eman zuen txostenaren bigarren puntuan adierazten da 2024ko otsailaren 6an ZAEARA bidali zuela preskribatu gabeko ekitaldietan egindako eta bidegabe kobratutako lan-etekinen gaineko atxikipenak itzultzeko eskaera. Bertan, xehatzen zen zenbat ziren jasotzaileak, zer ordainsari jaso zuten ekitaldi bakoitzean jasotako eta zer atxikipen egin zitzairen. GFAk dio eskaerarekin batera honako hau bidali zuela: «l. eranskina: ZAEAn lan egin duten hartzaileen identifikazioa».

Hori dela eta, nahiko datu eman dira ZAEAk itzuli beharreko kopuruak identifikatzeko.

6.4.- Horregatik guztiagatik, Arbitraje Batzordearen iritziz, 184/2024 espediente kasuaren oinarria Arbitraje Batzordearen urriaren 20ko 137/2022 Ebazpenarena bera denez (ebazpen hori Auzitegi Gorenaren urriaren 24ko 1313/2023 epai irmoak berresten du), demandatzailearen uzia baietsi egin behar da efektuak zabaltzeko prozeduraren bidez (prozedura hori Ekonomia itunaren 68.Hiru artikuluan arautzen da).

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak haxe

ERABAKI DU

1.- Deklaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena daukala honako hauek ordainarazteko: Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietan bere langileei Gipuzkoan egindako lanengatik ordaindutako errentei eta bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten funtzionarioei eta enplegatuei pentsioengatik edo hartzeko pasiboengatik ordaindutako errentei aplikatutako atxikipenak.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.